



## ALBISTEAK

Hasiera » Albisteak » “Poesia subertsiboa da”

### “Poesia subertsiboa da”

Asteartea, 2016-11-08

**Mikel Etxaburuk** ikuspegi horretatik heltzen dio poesiari. “Begiratzetik haratago, edukia-kontzientzia-kritikotasuna exigitzen duelako”. Ondarroako idazleak Blas de Otero Saria irabazi zuen iaz eta poemario saritu hura da, hain zuzen, *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein) liburuan jaso duena.



### Azken erreportajeak

#### Nobel saridunak euskaraz

Ostirala, 2016-10-21

#### David Foster Wallacen lanei so

Ostirala, 2016-09-30

#### Hiriaren idazle

Ostirala, 2016-06-17

#### Amélie Nothomben lanari begira

Ostirala, 2016-05-06

#### Bizitza idaztea

Ostirala, 2016-04-15

#### Literatura, jolas

GEORGES PERECEN ONDAREA EUSKARAZ

Ostirala, 2016-02-19

#### Virginia Woolfen ondarea euskaraz

JAIOTZA-EFEMERIDEA AITZAKI, VIRGINIA WOOLFEN EUSKARAZKO LANAK AZTERTU



DITUGU

Ostirala, 2016-01-29

---

## Natibo amerikarren literaturari so

ERREPASO TXIKI BAT EGIN DIOGU AEBEKO  
NATIBO AMERIKARREN LITERATURARI

Ostirala, 2015-12-04

---

## Idazleak eurak zeluloideari bazka

Ostirala, 2015-10-02

---

## Paperetik zeluloidera bidean

Osteguna, 2015-09-10

Arabiar kultura interes handiarekin jarraitzen duela dio Mikel Etxaburuk. “Arabiar batzuen ustez, uneak denboraren olatuak dira. Eta zentzu horretan, gorputz bakoitza hondartza bat da. Irudi oso polita da hori”. Esamolde horri beste zerbait gehituko lioke berak: “olatu edo une horrek, hondartza edo gorputz horietan orbanen bat uzten duela beti”. Alegia, orban batek olatu bat, une bat, min bat irudikatzen duela.

“Poeta batek zioen orbanak memoriaren posturak direla, memoria fabrikatzaileak gara. Arazoa da batzuetan orban horiek itxita daudelakoan ez direla behar bezala ixten. Iraganaz ari garelakoan, gaur egun ere eragin handi-handia edukitzen dutela”. Mikel Etxaburu horretaz guztiaz mintzo da poema hauetan: “memoria fabrikatzaileaz, orbanez, iraganaz, orainaz... Horretaz idatzi nahi izan dut”.

## HIRIAK KUTSATUTAKO POEMAK

Liburuaren aurkezpen ekitaldian, argi eta garbi zehaztu zuen poemario honen abiapuntua: lan honen geografia Bilbon kokatzen da. “Bilbon bizi naiz astean zehar, eta asteburuetan Ondarroara joaten naiz. Hortaz, ikasle bizitza egiten jarraitzen dut. Bilbon egoten naizenean, Bilbao La Viejan eta San Frantziskon egiten dut nire denbora librea. Bi gune horiek barnebildu nahi izan ditut liburuan”.

Hiriak kutsatutako poemak dira hortaz, baina bereziki ikustezin diren horietan erreparatu du. “Liburuan egunerokoaz ari naiz. Eguneroko horren aurrean guztiok daukagun jarrera hipokritaz. Uste dut superbibentzia kontua dela, baina poesiak eraman beharko gintuzke inoren azalean kokatzera. Adibidez: gure bankuko txartelarekin kutxazain automatikora joaten garenean, maiz, usain txarra nabaritu izan dugu. Lehen erreakzioa izaten da, *zein usain txarra dagoen hemen, zergatik ez dute hau hobeto zaintzen*. Konturatu gabe, gure alboan badagoela pertsona bat gaua bertan pasa duena”.

---

## BEGIRATZETIK IKUSTERA DAGOEN ALDEA

Mikel Etxabururen ustez, artea ez da soilik errealitatea irudikatzen mugatu behar. “Poesiak badu errealitatea eraldatzeko mailu hori. Niretzat poesia hori da: begiratzetik ikustera dagoen urrats hori poemetan islatzea. Zein dau urrats hori? Kontzientziarena. Eta kontzientzia horrek eramaten nau pentsatzera ia kutxazaineko pertsona horrek zein izen duen, zergatik pasa duen gaua hor, zergatik ez dagoen ni nagoen baldintza berberetan... Batzuk enpatia deituko diote horri. Ez dakit enpatia kontua den edo ez. Nik begiratzetik ikustera dagoen aldea nabarmenduko nuke”.

Ondarroako poeta konbentzituta dago begira nahi gaituztela, “eta ez ikusten. Ikusten duen horrek egoerak eta errealitateak aldatzeko gaitasuna izango duelako. Transformaziorako, *ikustea*, alegia, kontzientzia ezinbestekoa delako”.

Gustave Flaubertek zioen hankak lurrari iltzatuta eta begiak lurrera begira bizi beharrean zerura begira biziko bagina, ez oso berandu hegoak haziko zitzaizkigula. Etxaburuk ekarri du Flauberten aipu hori gogora. “Horregatik behar gaituzte beheruntz begira, gauzetan gehiegi sakondu gabe”.



## ATEA ZABALDU ETA ARGIA PIZTEKO MOMENTUA

Mikel Etxabururen ustez, “poesia subertsiboa da begiratzetik haratago, edukia-kontzientzia-kritikotasuna exigitzen duelako. Era batekoa edo bestekoa izan, norberak bere kontzientzia bere kritikotasuna duelako”.

Poesiak denboraren kudeaketa propio bat suposatzen duela dio: “zurrumbilotik atera, zeu zeure denboraren jabe egin, eta zeu zeure txokotik, gertatzen den horrekiko zuk zer nolako iritzia duzun” agertzeko tresnatzat du poesia. “Kontzientzia, ikustea eskatzen du jarrera horrek”.

Etxabururentzat, “poesia atea zabaldu eta argia pizteko momentua da. Mesanotxeko argia itzali eta ilargia piztera gonbidatzen zaituztet. Hor sortzen zaizkigu mundu berriak”. Halaber, poema bakoitzak zauri baten lekua adierazten duela sinetsita dago.

“Eta poemario honetan hainbat orbanen adierazle diren poemak daude”.

---

*Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein) poesia liburua urriaren hasieran aurkeztu zuen Donostian. Prentsaurrekoak eman zuena ondoko bideoan jaso dago:

## Utzi zure iruzkina



"Hegoak \_\_\_\_\_ banizkio, nirea izango zen" (derrigorrezkoa, spam-aren kontra)

Idatzi zure iruzkina

Iruzkina bidali

AGENDA

ALBISTEAK

ELKARRIZKETAK

AMUAK

KOMUNITATEA

IRAKURLE TALDEEN MAPA

BIDEOAK

ARTXIBOA ▾

## HARREMANETARAKO

Oier Guillan & Danele Sarriugarte & Imanol Ubeda

[hitzenuberan@idazleak.eus](mailto:hitzenuberan@idazleak.eus)

## LAGUNTZAILEAK



**HITZEN UBERAN • EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA**

**HARREMANETARAKO**